ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko otsailaren 27a, asteazkena • 25 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

94/2019 Foru Agindua, otsailaren 18koa, onesten duena deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko, Administrazio Orokorreko Eskalako, Administrarien Azpieskalako karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 Erabakiaren eta abenduaren 11ko 695/2018 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren 2017rako eta 2018rako Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintzei, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaproben bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu diren enplegu publikoaren eskaintza horien ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Hautaketa prozesuen kudeaketako ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiak direla eta, Administrazio Orokorreko Eskalako Administrarien Azpieskalako 2017 eta 2018ko enplegu publikoko eskaintzak aldi berean gauzatuko dira, hautaketa prozesuaren deialdi honen bitartez, zeinetan zehaztuko diren bi eskaintzetan guztira dauden lanpostu hutsak.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. - Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. - I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko, Administrazio Orokorreko Eskalako, Administrarien Azpieskalako karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. - II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. - Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

xedatutakoarekin bat etorriz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 18a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. ERANSKINA
OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA,
ADMINISTRARIEN AZPIESKALA (kodea: 34118)

1. DEI EGITEN DEN PLAZAK

Dei egiten da administrazio orokorreko eskalako administrari azpieskalako 79 plaza –C taldea, C1 azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 64 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, honela banaturik:

  - 1 plaza derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.
  - 37 plaza derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin.
  - 26 plaza derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.

- 7 plaza sistema irekian desgaituentzat gordetako kupoan, honela banaturik:

  - 1 plaza derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin.
  - 6 plaza derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.

- 7 plaza barne sustapeneko sistemako txanda orokorrean, honela banaturik:

  - 3 plaza derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin.
  - 4 plaza derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.

- 1 plaza barne sustapeneko sisteman desgaituentzat gordetako kupoan, derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.

Zortzi plaza gorde dira barne sustapenerako; horietatik lau 2017ko enplegu eskaintzari dagozkio eta, beraz, azken horiek ezin dira inora gehitu.

Nolanahi ere, 2018ko enplegu eskaintzari dagozkion laurak gehitu daitezke, giza baliabideak berriztatzeko tasatik ondorioztatutako gehieneko plaza kopuruaren barruan daudelako.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, batxilergo edo teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Halaber, dei egiten den 79 plazetako 7 betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA

3.1. Oposizio aldia

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aldi honetan, bi partez osaturiko ariketa bat egin beharko da. Bi parteak nahitaezkoak eta kanporagarriak izango dira, eta lehenengoa gainditzen ez dutenei ez zaie kalifikatuko bigarrena.

3.1.1. Lehenengo partea

a) Sistema irekia:

Zati honetan, gehienez ere hamar (10) puntu lortu ahal izango dira. Nahitaezko proba bat izango da, zeinean erantzun beharko baitzaio, idatziz, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko eta zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Zuzeneko puntuazioa ondoko formula honen emaitza izango da: puntuazioa erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena da (P = Z – O/3). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba hau gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa. Hau ezingo da 4 puntu baino gutxiago izan.

b) Barne sustapeneko sistema:

Zati honetan, gehienez ere hamar (10) puntu lortu ahal izango dira. Nahitaezko proba bat izango da, zeinean erantzun beharko baitzaio, idatziz, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Sartzeko sistema honetara lehiatzen direnen gehieneko puntuazioa, guztira, hamar (10) puntu izango da, eta gainditutzat emateko irizpideak a) apartatuan ezarritako berberak izango dira.

3.1.2. Bigarren partea

Erantzun beharko zaio, idatziz, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdera teoriko-praktikoz osatutako galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun izango dituzte galderek, lauetariko bat bakarrik dela zuzena.

Parte hau zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da.

Zuzeneko puntuazioa ondoko formula honen emaitza izango da: puntuazioa erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena da (P = Z – O/3). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba hau gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa. Hau ezingo da zazpi (7) puntu baino gutxiago izan.

3.2. Euskara

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azken eguna, hautaketa prozesu honetarako aurreikusitako euskara deialdi bateratuko lehenengo proba egiten den eguna izango da.

Arabako Foru Aldundiak ofizioz eskatuko dio Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari izangaiek lortu duten egiaztagiria.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hizkuntza eskakizun bat edo aipatutako erregistroan jasotzen ez den baliokideren bat daukatenek hala egiaztatu beharko dute epaimahai kalifikatzaileak ezartzen duen epean, eta lehenengo paragrafoan ezarritako azken eguna baino lehenago.

Hizkuntza eskakizun bat egiaztatzea honela balioetsiko da:

- 1. HE: 1,68 puntu.
- 2. HE: 2,09 puntu.
- 3. HE: 3,69 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak balioetsiko dira. Merezimenduen baremo honen arabera dagozkien puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

a) Sistema irekia:

Herri administraziotzat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia balioetsiko da, gehienez ere zazpi (7) puntutaraino, 0,05 punturekin lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta administrazio orokorreko administrari azpieskalako edo baliokideko lanpostuetan egin bada, edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administraziotzat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioko aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

b) Barne sustapeneko sistema

Herri administraziotzat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia balioetsiko da, gehienez ere zazpi (7) puntutaraino, 0,05 punturekin D (C2) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta 0,08 punturekin C (C1) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

3.3.2. Informatika ezagutza

Informatika ezagutzaren maila egiaztatzea merezimendu bezala balioetsiko da, Euskadi Informazio Gizartean Planak KZGune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluen bitartez, IT Txartela ziurtatze sistemaren bitartez edo beste organismo publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokide baten bitartez.

Haiek lortzeko azken eguna, 3.1 oinarrian ezarritako ariketa –edo oposizio aldiaren lehenengo partea– egiten den eguna izango da.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari (IT Txartela) ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten egiaztagiriak ziurtatzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Beste organismo publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokideren bat daukatenek hala egiaztatu beharko dute epaimahai kalifikatzaileak ezartzen duen epean.

IT-Txartelak edo antzeko ziurtagiriak betiere merezimenduak alegatzeko aldian aurkeztu beharko dira.

Gehienez ere 0,50 punturekin balioetsiko da, baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharragoenak.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

Praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere 4 hilabete iraungo duena, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

1.- GAI KOMUNAK

1. gaia.- Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10. - 55. artikuluak).

2. gaia.- Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua (1. - 9. artikuluak). I. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak (10. - 12. artikuluak). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko aginteak (24. -39. artikuluak).

3. gaia.- 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolamenduarena (1. - 33. artikuluak).

4. gaia.- 52/1992 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarena (3. - 27. eta 38. - 44. artikuluak).

5. gaia.- 10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru kargu publikoen jarduna arautzen duena (2. - 19. eta 33. - 36. artikuluak).

6. gaia.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Datuak babestearen printzipioak (4. - 10. artikuluak). Pertsonen eskubideak (11. - 18. artikuluak). Eskubide digitalak bermatzea (79. - 97. artikuluak).

7. gaia.- 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena. Xedapen orkorrak (1. - 4. artikuluak). Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna (17. - 36. artikuluak).

8. gaia.- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako: (1. - 22. artikuluak) Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa (1. - 22. artikuluak).

2.- GAI ESPEZIFIKOAK

9. gaia.- Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Prozeduran interesdun direnak (3. - 12. artikuluak). Administrazio publikoen jarduera (13. - 33. artikuluak).

10. gaia.- Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Administrazio egintzak (34. - 52. artikuluak).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

11. gaia.- Administrazio prozedura (III). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Prozedurako bermeak (53. artikulua). Prozeduraren hasiera (54. - 69. artikuluak). Prozeduraren antolamendua (70. - 74. artikuluak).

12. gaia.- Administrazio prozedura (IV). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Prozeduraren instrukzioa (75. - 83. artikuluak). Prozedura amaitzea (84. - 95. artikuluak).

13. gaia.- Administrazio prozedura (V). Ebazpenak betearaztea (97. - 105. artikuluak). Egintzak administrazio bidetik berrikustea (106. - 126. artikuluak).

14. gaia.- 40/2015 Legea,urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena (I). Xedapen orokorrak (1. - 4. artikuluak). Administrazio publikoetako organoak (5. - 24. artikuluak). Zehatzeko ahalaren printzipioak (25. - 31. artikuluak).

15. gaia.- 40/2015 Legea,urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena (II). Administrazio publikoen ondare erantzukizuna (32. - 37. artikuluak). Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (38. - 46. artikuluak).

16. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (I). Xedapen orokorrak (1. - 27. artikuluak).

17. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (II). Kontratuko alderdiak (61. - 71. artikuluak). Xedea, lizitazio oinarriaren aurrekontua, balio aurreikusia, kontratuaren prezioa eta berrikuspena (99. - 105. artikuluak).

18. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (III). Administrazio publikoen kontratuak prestatzea (115. - 130. artikuluak).

19. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (IV). Administrazio publikoen kontratuen esleipena (131. - 155. artikuluak).

20. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (V). Administrazio kontratuen ondorioak, haiek betetzea eta azkentzea (188. - 202. artikuluak).

21. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (VI). Obra kontratua gauzatzea, aldatzea, betetzea eta suntsiaraztea (237. - 246. artikuluak). Zerbitzuak emateko kontratua (284. - 295. artikuluak). Hornikuntza kontratua (298. - 307. artikuluak). Zerbitzu kontratua (308. - 315. artikuluak).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

22. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua (55. - 68. artikuluak). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (36. - 38. artikuluak).

23. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua (47. - 54. artikuluak). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (69. - 73. artikuluak).

24. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua (93. - 98. artikuluak). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (82. - 90. artikuluak).

25. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua (69. - 84. artikuluak). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (13. - 34. artikuluak).

26. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua (85. - 92. artikuluak). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (59. - 68. artikuluak).

27. gaia.- Bateraezintasunak. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa. Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasun araubidea (1. - 20. artikuluak).

28. gaia.- 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa, Arabako zergen orokorra (I). Tributuak. I. kapitulua, Xedapen orokorrak (16. - 34. artikuluak). II. Kapitulua, Zergapekoak (35. - 56. artikuluak).

29. gaia.- 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa, Arabako zergen orokorra (II). Zergen aplikazioa. I. kapitulua, Printzipio orokorrak (80. - 88. artikuluak). II. Kapitulua, Zerga jardunei eta prozedurei buruzko arau komunak (93. - 112. artikuluak).

30. gaia.- 33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena (I). I. titulua, Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1. - 5. artikuluak). II. Titulua, Zerga gaia (6. - 9. artikuluak). III. Titulua, Zergadunak (10. - 12. artikuluak). IV. Titulua, Zerga oinarria (13. - 39. artikuluak).

31. gaia.- 33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena (II). V. Titulua, Likidazio oinarria (67. - 73. artikuluak). VI. Titulua, Kuota osoa (74. - 77. artikuluak). VII. Titulua, Kuota likidoa eta kenkariak (78. - 87. artikuluak).

32. gaia.- 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergarena I. titulua, Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1. - 7. artikuluak). II. Titulua, Zerga gaia (8. - 10. artikuluak). III. Titulua, Zergaduna (11. - 14. artikuluak). IV. Titulua, Zerga oinarria (15. artikulua).

33. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zergaren araua. 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa. Atariko titulua, Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1. - 3. artikuluak). I. titulua, Zerga gaiaren mugaketa (4. - 19. artikuluak). II. Titulua, Salbuespenak (20. - 25. artikuluak).

34. gaia.- 11/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena. Atariko titulua (1. - 6. artikuluak). I. titulua, Ondare

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

eskualdaketak (7. - 27. artikuluak). III. Titulua, Egintza juridiko dokumentatuak (52., 53., 54., 55., 57. eta 58. artikuluak).

35. gaia.- 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen araubide ekonomikoarena (I). Printzipio orokorrak, egitura eta edukia (27. - 42. artikuluak).

36. gaia.- 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen araubide ekonomikoarena (II). Aurrekontuen gauzatzea eta likidazioa (74. - 86. artikuluak). Aurrekontuen luzapena (87. artikulua). Kontabilitatea (109. - 116. artikuluak).

37. gaia.- Diputatuen Kontseiluaren 18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, fakturazio betebeharrak arautzen dituen arautegia onesten duena. Fakturen betebeharrak (Eranskinaren 6. - 16. artikuluak). Diputatuen Kontseiluaren 67/2014 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, sortzen duena foru administrazioko fakturen kontabilitate erregistroa eta onesten duena hori izapidetzeko prozedura (osoa).

38. gaia.- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena. Aplikazio eremua (1. - 5. artikuluak). Dirulaguntza publikoen xedapen komunak (6. - 19. artikuluak).

39. gaia.- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena. Emateko prozedura (20. - 25. artikuluak). Dirulaguntzen itzulketa (34. - 42. artikuluak).

40. gaia.- Hizkuntza normalizazioa. 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (97. - 99. artikuluak). 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzekoa (1. - 14. artikuluak). 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.27 06:34:10 Z